

**IKUSPEGI
FEMINISTAK EKOIZPEN
ARTISTIKOETAN ETA
ARTEAREN TEORIETAN**

II. EDIZIOA

2013

Egilea

MARYAM JAFRI

Titulua

MARYAM JAFRI. ARTE LANA



**AZKUNA ZENTROA
ALHÓNDIGA BILBAO**

Ameriketako Estatu Batuetan nortasun-politikak une gorenean zeudenean heldu nintzen adinetara, bai unibertsitatean literatura-ikasle nintzen urteetan (literatura-teoria ere ikasi nuen han; zehazki, teoria feministak eta postkolonialistak literatura-kanonaren irakurgaietan izandako eragina), baita ondoren ere, New Yorken bizitzen eta artista gisa lanean aritu nintzenean. Butler-ek argitaratu berria zuen *Gender Trouble* lana, zeinak eragin garrantzitsua izan zuen artegintzan; bereziki, zineman, bideoan, performancean eta argazkilaritzan oinarritutako artelanetan. Hala ere, generoaren performatibotasunaren kontzeptuak teoria sinplistei batzuei eman zien bide; horien arabera, generoa aukeraketa bat litzateke; *drag* aukeratu egiten zen, edo, are okerragoa zena, produktu bat zen; identitatea kontsumogai zen. Niretzat garbi zegoen generoari buruzko interpretazio esentzialistei kritika egitea garrantzitsua izanagatik ere, patriarkatuaren mende modu erabat sotiletan eragiten zuela genero-erregimenak; ohargarriki zenbaitetan, baina era ohartzinean beste batzuetan. Eta iruditzen zitzaidan erregimena ezagutzeak eta kritikatzek ez zituela haren efektu kaltegarriak berehala uxatzen sexismo instituzionalizatutik eta sarri inkontzienteak —eta, beraz, eragozteko zailagoak— diren prozesu eta eragin jakin batzuetatik. Ideia horrek eragina izan zuen nire estrategia performatiboan. Hala, baztertu egin nituen bibote faltsuak, ileordeak eta bestelako moztu-oinarriak, baldar samarrak iruditzen baitzitzaizkidan, eta estrategia sotilago baten bila hasi nintzen, erregimenak baliatzen duen sotiltasuna adierazteko asmoz. Izan ere, sotiltasun hori, kanpotik inposatutako zerbait izan beharrean, subjektuaren baitan sortzen den eragin bat dela esan daiteke —eta, nire ustez, arlo hori, hein handi batean, psikoanalisiak jorratzen du—. Besteak beste horregatik du hizkuntzak halako garrantzia lan hauetan.

Performanceetan oinarritutako nire hasierako bideo-lanek (2000tik 2002ra bitartekoak) hizkuntza, psikologia eta generoa zituzten ardatz. Proiektatutako ditudan lau bideoek lehen planoan darabilte, eta bideokamerak espazio performatibo bihurtzen ditu plano horiek. Nire lanean, hizkuntza-mailan giltzaten dira hoberen barne-espazio psikikoaren eta kanpo-espazio sozialaren arteko tentsioak; maila horretan iradokitzen dituzte nire pertsonaien adierazpenek kanpo-adierazpena zein barne-bakarrizketa.

Running:

Hiru pertsonaia antzezten ditut: gizon bat, emakume bat eta ume bat. Bakoitzak bere familia-historiaren inguruan duen bertsioa eskaintzen du. Maila funtsezkoenean, bideoa pertsona bakar bat besterik ez da, kamerari behin eta berriro gauza bera esanez. Hala ere, hizkuntza-mailako errepikapenen eta aldaketen bitartez, istorio bat garatzen da arian-arian.

Theatre:

Bideo honetan, bi pertsonaia antzezten ditut. Bi pertsona desberdintzat har daitezke, edota izaki baten beraren bi alderditzat. Bi pertsonaiek bata bestearen esaldiak bukatzen dituzte, eta biak —edo, beharbada, bat— agertokira aurrenekoz igo ziren unea birsortzen dute. Agertokian jazotakoak hortik kanpo gertatzen dena islatzen du; agertokiaren atzealdean gertatzen denak eragina du agertokian gertatzen denaren gainean. Dena dela, bideoan ez da inolako agertokirik ikusten; denbora eta lekua hizkuntzaren bitartez aurkezten dira soil-soilik. Espazio fisikoa eta mentala plano bakar batean elkartzen dira, eta agertoki-atzealdeko munduari aukera ematen zaio hein batean —baina ez esklusiboki— subkontzientearen metafora gisa funtzionatzeko. Hizkuntza mintzamenaren eta pentsamenduaren artean mugitzen da etengabe, eta testu bakar batean biltzen dira eszena-argigarriak («sartzen naiz», «ezkerrera biratzen naiz»), barne-pentsamenduak («urduri nago») eta ohiko antzerki-elkarrizketa; horrek guztiak egitura labirintikoa ematen dio kontakizunari.

Father & Son:

Plano etengabe bakarrean filmatutako bideo hau pertsona batentzako elkarrizketa da. Gizon batek bere semearekin hitz egiten du, edo, tarteka, gaztetako bere buruarekin. Anbiguotasun hori, aurpegi bat bera bi pertsonaien artean eta hitzaren eta oroimenaren artean txandakatze hori, berariazkoa da.




Janus:

Bideo honetan, ahots berarekin hitz egiten duten bi pertsonaia antzesten ditut. Biek azaleratzen dute nahi zapuztu bera, dela bestearekin guztiz bat egitea, dela harengandik guztiz banantzea. Bikotea bi modutara beha daiteke: bi pertsona desberdin gisa edota norbanako baten beraren bi alderdi gisa.

Nire lanaren adibide berriago bat *Avalon* bideoa da (11:23 min., HD bideoa, 2011). 2001ean, zehaztu gabeko herrialde asiar batean, F.R. inizialeko gizon batek 700 dolar jaso zituen bere aitarengandik, diru horrekin bere etorkizuna lantzeko. F.R.k milioi ugariako enpresa klandestino bat sortu zuen, isilpean Mendebaldera material feitxista esportatzen zuena. Enpresa horretako langileek —gehienak emakumezkoak ziren— ueste zuten armada estatubatuarrentzako hilotz-poltsak, gaixo psikiatrikoentzako alkandora hertsagarriak eta zirkuko animalia-hezitzaileentzako *attrezzo*a egiten zituztela. *Avalon* bideoan, uztartzen dira, batetik, fabrikako metraje dokumentala eta, bestetik, Bristolera erakitako dekoratu batean filmatutako zenbait eszena, non produktuen azken erabiltzaileei buruz hausnartzen baita. Eszena horiek ikerketa-lan zabal batean eta bizitza errealeko pertsonen egindako elkarriketetan daude oinarrituak. Aktore bat aurkezten digute, ziega bateko bezeroaren papera jokatzen, *role-play* saio batean murgilduta, saioak esperientzia psikologiko biziak eskainiko dizkiolako ustetan. *Avalonen* F.R.ren benetako historia hartu dut abiapuntu gisa, zertarako eta hausnarketa konplexu bat egiteko, egungo baldintza globalen menpe desiraren, lanaren eta produktuaren artean eraturako loturei buruz. Filmak, eszenaren eta fabrikaren mundua elkarren ondoan ipiniz, bai eta performatibotasuna eta ekoizpena ere, gaur egun lanak hartzen dituen molde desberdin baina elkarlotuak aztertzen ditu: ondasunen ekoizpenetik subjektibotasunaren ekoizpena.

Horrenbestez, fabrikaren eta eszenaren munduak elkarrengana gerturatzeko ahalegina dut *Avalon*; hau da, lanaren esparru biak aztertze saioa: gainbalioak eta subjektibotasunak sortzea, leku sozialetan ekonomikoak direnak; eta, Deleuzek eta Guattarik aspaldi adierazi zuten bezala, horien ondorioz, bi modutara azaleratzen da desioa: lan alienatzailearen gisako bulkada blokeatu moduan edota kontsumitzeko manu zorabiagarri moduan. Esan didate *Avalon* oso ondo bideratutako lana dela; oso neurritsua eta kontrolatua dela formaren aldetik, eta bat datorrela filmean fabrikatzen ikusten ditugun lotze-tresna erotikoeekin. Kontrol hori, keinuaren estilizazio hori, gogortasunarekin uztartuta dago, halako molde non ia konposizio alegoriko bihurtzen den pelikula. Egiaz, bat datoz *Avalonen* kontrol formala eta pelikulan ageri zaizkigun lotze-tresnek iradokitakoa, eta *Avalonen* berariaz landu nuen kidetasun hori; hain zuzen ere, erakutsi nahi nuelako zein era absolutuan eta eraginkorrean mugatzen eta bideratzen duten gaur egungo lantokiek desira produktibotzat jotako helburuetara. Bost eszenak lanerako eta/edo kontsumorako guneetan kokatzen dira, azken finean txanpon beraren bi aurpegi baitira bulego-gelaxka txiki modernoak eta neurritz kanpoko merkataritza-zentroak; lehenengoaren ihesgune moduan funtzionatzen du bigarrenak. Beraz, *Avalonen* ez dago mugimendu-etzandarik, baina erabateko gelditasunik ere ez. Nire helburua erabat blokeaturik ez, baina erabat aske ere ez dagoen desira bat erakustea zen; bien tarteko tentsioan lerratua dagoen desira. Kapitalak guztiz eta erabat berreskuratuko balu desira, ez legoke inolako itxaropenik. Baina, gaur egungo aldarre historikoan, ez dago askapenerako ibilbide-orri argirik ere. Hala, eztzandarik sortuko bada, sor badaiteke bederen, ikuslearengan beharko da sortu.






Video Still. Avalon (2011), Maryam Jafri



Video Still. Avalon (2011), Maryam Jafri





Video Still. *Avalon* (2011), Maryam Jafri